

197. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

Gizarte beharrei
erantzuten, elkarlanean



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Azterketa	3
Leku aldaketa	6
Gizarte beharrak	8
Zerbitzuak	12

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa

Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland

Maketazioa: Sorland

Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.

Biztanleriaren zahaztea erronka

Biztanleriaren zahartzea errealitate bat da; sortzen ari diren behar berriei erantzuten hasteko ikerketa egin du udalak. Datorren hamarkadan, batez ere, 80 urtetik gorako mendekotasun handiko egorak areagotuko dira, eta horie erantzutea izango da erronka

Azpeitiko gizarte beharrak zeintzuk izango diren aurreikusteko helburuarekin, Azpeitiko Udalak SIIS ikerketa zentroari azterketa egiteko eskatu dio. Hala, alde batetik, kalkulu bat egin du zentroak 2031. urtean Azpeitian mendekotasun arloko gizarte zerbitzuen beharra izan dezaketen adinekoena; populazioaren proiektzio bat egin du; mendekotasun egoerek datorren hamarkadan izango duten prebalentzia iragarri du; eta laguntza informalak datorren hamarkadan izango duen bilakaera aztertu. Beste alde batetik, gizarte zerbitzuen beharrean egongo diren adineko azpeitiarrei eskaini beharreko zerbitzuen kalkulua egin du, eskaera tasari eta arreta ereduie dagozkien agertokiak planteatuta.

POPULAZIOAREN ZAHARTZEA

Ikerketaren arabera, Azpeitiak 15.894 biztanle izango dituela 2031. urtean; hau da, gaur egun baino 1.108 pertsona gehiago. Zaharren eta oso zaharren kopurua beste biztanleena baino gehiago igoko da, eta adinekoek pisu handiagoa izango dute populazio osoan.

Populazioa zahartzearen ondorioz, biztanleen erdibideko adina 2018an 44 urtekoa dena 46 urtekoa bilakatuko da, eta ekonomikoki aktiboa ez den populazioaren proportzioa %59tik %61era igoko da.

Hilkortasun indizeek ere bilakaera ona erakusten dute: proiektzioa egiteko erabilitako aurreikuspenen arabera, populazioaren bizi itxaropena igo egingo da (gizonetan emakumeetan baino gehiago). Gizonen bizi itxaropena 83,8 urtekoa izatea espero da 2031. urtean, eta emakumeena 88,9 urtekoa.


MENDEKOTASUNAREN BILAKAERA

Azpeitian, 2018. urtearen amaieran, 596 lagunek zuten onartuta mendekotasun mailaren bat. Horietatik %40 inguruk, mendekotasun arina dute, %35,4k mendekotasun larria eta ia laurdenak, menpekotasun handia. Mendekotasun maila guztietan, prebalentzia altuagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

2031. urterako mendetasun arriskuan edo mendetasunean, dauden herritarrak gaur egun baino %32,5 gehiago izango dira

Planteatu diren hipotesiekin, uste dute 691 adineko izango direla 2031. urterako mendetasun arriskuan edo mendetasunean, hau da, gaur egun baino 169 lagun gehiago (%32,5). Hain zuzen ere, kalkulatu dute mendekotasun arina dutenen prebalentzia ia ehuneko bat igo daitekeela, gaur egun 65 urtetik gorako biztanleen %5,8k izatetik %6,7raino. Mendekotasun larriaren eta handiaren prebalentziak apenas aldatzen diren. 2031 urtean, menpekotasunen bat duten hamar adinekotik ia lauk mendekotasun arina izango dute, hamarretik hiruk mendekotasun larria, eta laurdena baino zertxobait gutxiagok mendekotasun handia.

Biztanle proiektzioa: populazio piramidearen bilakaera. Azpeitia, 2018 eta 2031



Iturria: Geuk egina.

GIZARTE ZERBITZUEN BEHARRAK

2031. urtean beharrean egon daitekeen populazioa zehaztuta, gizarte zerbitzuak zenbaterik eskatuko dituzten eta zer-nolako zerbitzu mota emango zaien zehaztu du ikerketak. Izan ere, alde batetik, zerbitzuak jasotzeko eskubidea duen orok ez du eskatzen, eta, bestalde, behar berei desberdin erantzun dakieke, hau da, zerbitzu sorta edo konbinazio desberdinekin.

Etorkizunean arreta nola eman, agertoki bat baino gehiago planteatu dira ikerketan: zehazki, zortzi, lau arreta eredua eta bi eskaera tasa konbinatuz lortzen direnak:

Eskaera tasari dagokionez, bi hipotesi planteatzen dira:

- Gaur egungo mendekotasun mailaren arabera eskaera tasak bere horretan jarraituko du 2031. urtean (mendekotasun arina dutenen %77,8k, mendekotasun larria dutenen %91,9k eta mendekotasun handia dutenen %96,5k eskatuko dute).

- Eskaera tasa mendekotasun arina dutenen %80ra, mendekotasun larria dutenen %95era eta mendekotasun handia dutenen %98ra iritsiko da 2031. urtean.


Arreta ereduei dagokienez, lau agertoki planteatzen dira:

- Gaur egungo eredua. Gaur egun adineko mendekoei eskaintzen zaien zerbitzuen konbinazio bera;
- Eredu komunitarioa, prestazioetan oinarritua. Arreta komunitarioa lehenesten duen eredua, eta etxean dauden pertsonentzat prestazio ekonomikoak lehenesten dituen, zerbitzuen aldean;
- Eredu komunitarioa, zerbitzuetan oinarritua. Arreta komunitarioa lehenesten duen eredua, eta etxean daudenentzako zerbitzuak lehenesten dituen, prestazio ekonomikoen aldean;
- Eredu instituzionala. Egoitza arreta lehenesten duen eredua, zerbitzu eta prestazio ekonomikoen aldean.

2018ko datuen arabera, mendeko adinekoen %86,7k zaintza zerbitzu-ren bat jasotzen dute, hau da, egoi-tza zerbitzua, eguneko zaintza, etxez etxeko laguntza edo mendekotasu-nerako prestazio ekonomikoetako bat (familia inguruneke zainketarakoa edo zaintzaile profesional bat kontratatze-koa). Bestalde, %1,8k zerbitzu osa-garriak bakarrik jasotzen dituzte; hau da, laguntza teknikoak, zaintzaileen atsedenerako egonaldi laburrak, tutoretza zerbitzua edo kotizazio gabeko pentsioak.

GAUR EGUN ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK


- Eguneko unitatea adinekoentzat
- Eguneko zentroak (adinekoena, Goienetxe eta Gautena)
- Etxez etxeko laguntza egunez eta gauez
- Adinekoentzako San Martin egoitza
- Etxebizitza komunitarioak (Gautena, Goienetxe)
- Prestazio ekonomikoak




Iturria: Azpeitiko Premia Sozialei buruzko inkesta (2014)

Menpekotasuna duten adinekoak, sexua eta adin talde handitan. Azpeitia, 2018/12/31

Sexua
■ Gizon ■ Emakume



Adina
■ 65-79 ■ 80+



Iturria: Geuk egina.

Eragileen leku aldaketa, abian

Atzegiko Txolarte aisialdi taldeak eta Udal Euskara Patronatua Perdillegiko eremua utzi eta Telefonikako eraikin eraberrituan izango dute egoitza etorkizunean



Perdillegiko eremua pixkanaka-pixkanaka uzten hasiko da, etorkizuneko gizarte beharrei erantzungo dion eraikin berriari lekua uzteko. Eta Udala, hasi da gaur egun eremu horretan egoitza duten eragileen kokapen berria adosten eta zehazten. Lehen leku aldaketak abian jartzeko lanak ere hasi ditu.

Atzegiko aisialdirako Txolarte taldeak eta Udal Euskaltegiaren egoitza berriak Telefonikako eraikin eraberrituan izango dira. Bi eragile horiek beren beharrei erantzungo dien egoitza izan dezaten Telefonikako eraikin zaharra berritzen hasiko dira. Obrak hasi berri dira eta 18 hilabeteko epean eraikina eraberrituta izango da. 1.315. 523€ko inbertsioa egingo du udalak horretarako eta Iparragirre

Eraikuntza enpresak egingo ditu eraberritze lanak, lehiaketa publikoa irabazi ostean.

Leire Goenaga Gizarte Zerbitzu eta Ogasuneko batzordeburuak eskerrak eman dizkie egoitza aldaketaren prozesuan elkarlanerako azaldutako jarrera eta gogoagatik: "Perdillegiko gunea, pixkana husten hasi behar dugu gizarte beharrei erantzuteko abian dugun proiektu estrategikoa gauzatzen ikusteko. Beraz, han Azpeitia hobeago bat izateko lanean aritzen diren eragileei beste leku bat bilatzen hasiak gara. Aldaketak onerako izatea nahi dugu eta Telefonikako eraina eraberrituta hemen euskaltegia eta Txolarteko aisialdi taldearentzako lekua eokituko dugu".

Naroa Uria eta Eli Agiriano Txolarte taldeko kideak "gustura" azaldu dira egoitza aldaketaren proiektuarekin: "Urte asko daramatzagu Perdillegin elkartzen, baina egia da, gurea bezalako talde batentzat oso garrantzitsua dela irisgarritasuna, eta egoitza berria askoz egokiagoa izango da alde horretatik", adierazi dute. Alde Zaharrean bertan kokatuta egotea ere garrantzitsua dela azpimarratu dute: "Herrian bertan gaude, ez daukagu mugitu beharrik eta egoitza berriak ekintza berriak egiteko aukera ere eskainiko digu. Azkenean, udalarekin elkarlanean, gure erabileraren arabera diseinua egin dugu". Egoitza berria, taldea indartzeko tresna izatea ere nahiko lukete: "Leku aldatzeko gogoz gaude dagoeneko. Eta aldaketa, gure taldea bisibilizatu, ezagutarazi eta indartzeko aukera izatea nahi dugu".

Atzegiko Txolarte aisialdiko taldearen etorkizuneko egoitza, eraikinaren beheko solairuan kokatuko da, Perez Arregi plazako eta Erdikale kalerako fronte osoa hartuko du eta 120 metro koadro inguru izango ditu. Perez Arregi plazako sarrera nagusitik izango du sarbidea. Sartu eta, alde batean (hego-ekialdean), sukalde-jangela izango du; Erdikaleko frontean, egongela kokatu da; proiektioetarako gunea eta egoteko gunea izatea aurreikusten da bertan. Egoitzaren erdialdean, ate inguruan, mahaigunea kokatu da, erabiltzaileen joku eta elkarbizitzarako eta gurasoen bileretarako aproposa izango dena.

Udal Euskaltegia eraikinaren lehen solairuan eta teilatu azpian kokatuko da. Horretarako, eraikinaren altuerak berrantolatu eta irisgarritasun arauetara egokituko da. Sarrera Enparan kaletik izango du eta sarreran izango dira eskailerak eta igogailua. Lehen solairuan, irakaskuntza-espaziorako egokituko da eta tamaina desberdinetako bost ikasgela, bi tutoretza gela, komunak eta biltegia izango dira bertan. Goiko solairuan, berriz, Udal Euskara Patronatuko beste zerbitzu etarako harrera, 10-12 lanpostu etarako bulego irekia, bi banakako bulego, komunak eta langileentzako sukalde-jangela izango dira. Enparan kaleko dorrean erabilera anitzeko gela kokatu da eta Erdikaleko dorrean berriz, administrazio-espazioei lotutako bilera-gela kokatu da.



ERAIKINAREN HISTORIA

- Gaur egungo itxura duen eraikinaren aurretik, leku berean, Vicuña etxea zegoen. Badirudi alde zaharrari sarrera ematen dion arku bat ere bazeukala etxeak, gainera.
- 1923-1925 urteen inguruan, Urolako trenbidea herrira iristean, Azpeitiko Udalak Vicuña etxea kokatuta zegoen lurrak erosi zituen, Perez Arregi zubia eta plaza egiteko (zubia 1926an ireki zen), horrela Alde Zaharra eta Urolako trenbidearen geltoki berria lotzeko asmoz.
- Salerosketa horren ondorioz, Vicuña etxea eta inguruko lurren jabeak, bere familiarentzat etxe berri bat eraikitzeko orube bat mantendu zuen.
- Jauregi itxurako eraikin berria zein urtetan eraiki zen ez dago garbi, baina 1924-1927 inguruan eraiki zela dirudi.
- Urte batzuk geroago, Telefonica enpresa eraikinaren jabe egin zen.
- 2005. urtean Telefonicari erosi zion eraikina udalak.
- Ordutik, herriko hainbat talde eta eragileren egoitzak izan dira bertan, baina Soreasura leku aldatu dira azken urteotan.



Gizarte beharrei erantzungo dien proiektu estrategikoa Perdilegin kokatuko da

Kokapena eta zentro balioanitz berria Azpeitiko zaintzarako ekosistemaren ardatz nagusia izango dira. Pertsona erdigunean jarriko duen arreta zerbitzu berritzaile eta integrala bertatik eskaintzea adostu dute

Gizarte beharrei erantzun eta zaintzaren arloan pertsona erdigunean jarriko duen proiektu estrategikoa abiatu dute Azpeitiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta San Martin Fundazioak. Eta bere izaera eta egitura lantzen ari badira ere, beharrei erantzuteko erainik berri baten beharra detektatu dute, eta non egin ere adostu dute bi erakundeek: Perdilegiko eremuan.

**Pertsona erdigunean jarriko
duen arreta zerbitzu berritzaile
eta integrala izango da oinarria**

Azaroaren 12an, Maite Peña Gizarte Politikako foru diputatuak eta Nagore Alkorta Azpeitiko alkateak adostutakoaren berri eman zuten. Proiektuaren garrantzia eta adostasunaren seinale bertan izan ziren Amaia Etxeberria EAJtako udal bozeramailea eta Manolo Aizbitarte San Martin egoitzako zuzendaria ere.



**Zaintzaren gaiak
guztion konpromisoa
eskatzen du:
eragile publiko,
profesional, talde
edota komunitatearen
inplikazioa**

Azpeitiko Udalak duela urte eta erdi baino gehiago jo zuen Gipuzkoako Foru Aldundira, etorkizunean herrian izango diren gizarte eta zaintza beharrei erantzuteko hutsune edo gabeziekin kezkatuta. Izan ere, zaintzaren eremuko eskuduntzak bi erakundeon artean elkarbanatzen dira. Hala, iritzia trukatu eta bide komun bat egin asmoz, 2020ko abenduan jarduketa protokolo hitzarmena sinatu zuten eta hari lotutako lanketan ateratako ondorioei erantzuteko pauso garrantzitsu bat da oraingoa.

Ia urtebeteko lanketatik, etorkizunean gizarte beharrak handitu egingo direla, eta horiei erantzuteko azpiegitura berri baten beharra izango denez, eraikina egiteko prozesua abiatu dute. Eraikin berriaren kokapena ere zehaztuta dute dagoeneko: Garmendialde eremuko Perdillegi azpierrezua.

ARRETA-EKOSISTEMA INTEGRALA

Eraikin batetik harago, gizarte baliabide eta zerbitzuen inguruan abiatutako hausnarketa eta azterketa prozesuaren helburua zaintzarako tokiko arreta-ekosistema oso bat bultzatzea da. Horretarako eredu berri eta berritzailea sustatzen ari dira bi erakundeak. Eta, abiatutako urratsek berrikuntza sozialerako bidean sakontzea dute helburu.

Nagore Alkorta, alkateak lortutako adostasuna Azpeitiarentzat pauso estrategikoa dela azpimarratu nahi izan du: "Gizarte beharrei erakundeok elkarlanean erantzuteko ezinbestekoa da herritarrentzat. Eta adostasun hau eta gaur hemen plazaratutako erabaki hau azpeitiarentzat albiste ona da. Eraikin berria, zaintzaren arloan pauso oraindik eta garrantzitsuagoa emateko izango dela ere gaineratu du: zaintzarako ekosistema oso bat eraikitzea: "Iragartzen ari garen kokapena eta eraikin berria Azpeitiko zaintzarako ekosistemaren ardatza izango da. Pertsona erdigunean jarriko duen arreta zerbitzu berritzaile eta integralaren oinarria izango da. Azpeitian



Denon artean arlo honetan ditugun erronkei ere aurre egiteko lanean jarraituko dugu

zaintzarako zerbitzuen estaldura oso zabala daukagu. Zerbitzu horiek osatzeko esperientzia berritzaileak jarri ditugu abian, eta uste dugu, oinarri oso sendoa dugula jauzi berri bat emateko", adierazi du.

Herritarren beharrei erantzun eta etengabeko hobekuntzaren bidetik lanean jarraitzeko konpromiso publikoa ere agertu du: "Beharrei erantzuna ematea dagokigu erakunde publikoari eta gure premisa, Denontzako Azpeitia eraikitzea da. Zaintzaren gaiak guztion konpromisoa eskatzen du: eragile publiko, profesional, talde edota komunitatearen inplikazioa. Eta denon artean arlo honetan ditugun erronkei ere aurre egiteko lanean jarraituko dugu".

Maite Peña diputatuak gaineratu du Azpeitian hasi den bideak ibilbide "luze eta emankorra" duela aurretik. Izan ere, iazko abenduan bi erakundeen artean sinatutako hitzarmenak helburu du herrian zaintzen ekosistema lokal bat bultzatzea: "Zaintza eredu berri bat sustatuko duena, gizarte zerbitzuen eskaintza behar berrietara egokituz eta komunitate osoaren inplikazioa bilatuz".

Lehen hausnarketa eta beharren inguruko azterketa abiatuta, udalerrian gizarte zerbitzuen arloan dauden erronkak identifikatzeko ari dira lanean Aldundia eta Udala, "ezinbesteko lana" Peñaren hitzetan: "Zaintzak komunitatearekin eta gizarte-berrikuntzarekin lortzea da etorkizuna; horrela, ekosistema aurreratu bat sortzen ari gara herrian, eta horren erdigunean kokatzen da Azpeitiako zentro balioanitz berria".

Bakardadeari aurre egitea, erronka

2030. urtera begira eginiko azterketa prospektiboaren arabera, datorren urteetan populazio osoa %7,5 igoko da. 65 urtetik gorako pertsonen kopurua, berriz, %28 haziko da; eta 80 urtetik gorakoena %40. Beraz, biztanleriaren zahartzea nabarmena izango da, batez ere 80 urtetik gorakoena.

Menpekotasun tasak zertxobait egingo du gora, baina batez ere 80 urtetik gorakoetan haziko da. 2020an 622 menpeko pertsona zeuden Azpeitian; horietatik %57,7a 80 urtetik gorakoa zen. 2031n, 691 menpeko pertsona izango; hau da, %11,1 haziko da menpeko pertsonen kopurua. 80 urtetik gorako menpeko pertsonak, berriz, %38 haziko da.

Kezkarako beste datuetako bat, bakarrik biziko direnen kopurua da. 2031. urtean 65 urtetik gorakoen lautik bat bakarrik biziko dela aurreikusten baita.

Zaintzaren eremuko eskuduntzak Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak partekatzen dituzte



Uren arazoa, San Martinen

San Martin egoitzaren handitzeko baimenik ez du lortu udalak, Ibai eder ibaiaren bi aldeak, Artzubialde eta Amue eremuak, fluxu handiko eremuak direlako

Azpeitiko zonalde ugarian arazo bera aurkitzen da gaur egungo hainbat eremutan, azpiegituretan edo eraikinetan aktuatu edo berriak eraikitzeko orduan. Uholde arriskuko zonalde dira herriko eremu ugari, eta horrek prebentzioan neurriak hartu beharra dakar.

Eusko Jaurlaritzaren Urak agentziak historian izandako uren gorabeherak eta uholdeak aztertu ostean, etorkizunean ere uholdeak izan dezaketelakoan arriskuko eremu izendatzen ditu hainbat eremu. Azpeitian asko dira egoera horretan; hala ere, eremu bakoitza arrisku aukera desberdinen arabera izendatzen dira. Zonalde horiek, batez ere, ibaien inguruko eremuak dira.

Uholde arriskuko eremuez gain, bereziki arriskuko eremu izendatuta daude Azpeitian, Artzubialde eta Amue eremuak. Izan ere, lehentasunezko edo fluxu handiko eremuak dira. Artzubia kalearen paraleloan


Artzubialde eta Amue eremua fluxu handiko eremu izendatuta daude

etortzen dira Ibai eder ibaian urak, eta azoka plazaren parean, herria alde alde gurutzatzen duen Urola ibaiarekin elkartzen da. Eskualdeko ur ia guztiak biltzen dira eremu horretan; alde batetik, Errezil eta Urrestilla aldetik datozenak, eta bestetik, Azkoitiatik behera datozenak. Beraz, uholdeak izateko aukeraz gain, Ibai eder eta Urola ibaien elkar-ketak inguru horren arriskua handitzen du.

SAN MARTIN, BALDINTZATUTA

Problematika horren erdian, San Martin egoitza aurkitzen da. Duela hainbat urtetatik adinekoen beharrak handitzen doazen heinean herrian bertan adinekoentzako egoitzaren zerbitzua indartu asmoz Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Azpeitian egoitzako plaza gehiago sortzea adostua dute. Baina uholde arriskuaren ondorioz, San Martin Egoitza ezin da handitu, eta, beraz, adinekoen egoitzako zerbitzu gehiago eskainiko badira herrian, beste eremu batean izan behar du.

Uholde arriskuak herriaren garapena zenbat baldintzatzen duen jakitun, Azpeitiko Udala Urak agentziarekin elkarlanean eta har daitzkeen neurrien inguruko lanketa egiten ari da egoera horri irtenbidea bilatzeko.





Zaintzaileak zaintzea, erdigunean

Azpeitiko Udalak zaintzaileak erdigunean jarri eta horiei arreta eskaintzeko programa berria eta berritzailea abiatu du. Programa zaintza lanetan aritzen diren etorkinei zuzendua dago

Zaintza eta zaintzaileak erdigunean jarri nahi ditu udalak. Zaintza lanen eremuak aldaketa handiak jasan ditu azken urteetan. Duela urte gutxira arte, adineko mendeko pertsonak familiakideen artean zaintzen ziren. Gaur egungo bizimoduak, berriz, familiaz kanpoko zaintza lanetako profesionalen esku uztea ekarri du. Udalak, zaintza beharren lanketa sakona egiteaz gain, zaintzaileen zaintzari ere garrantzia berezia ematen dio. Horregatik, duela zenbait aste, zaintzaileak babestu eta laguntzeko zerbitzu pilotu berria jarri du martxan. Astero ordu eta erdiko saioa eskaintzen zaie.

Gaur egun familian edo zaintza lanetan aritzen diren pertsonen esku gelditzen da mendekotasun egoeran dauden pertsonen zainketa. Lan arlo oso feminizatua da; hau da zaintzako langile ia guztiak emakumeak dira. Emakumeak eta etorkinak zehazki. "Zaintza lanetan ari diren pertsonak zainduak diren pertsona zein familiekin harreman emozionalak sortzea ezinbestekoa da. Elkar ezagutza baita zaintza on baten oinarria. Baina, aldi berean, zaintza lanetan aritzen diren horientzat harreman eta lotura

Zaintza lanetan aritzen diren horientzat harreman eta loturak zama bilaka daitezke. Zama hori arintzeko jarri berri dugu programa abian



horiek zama bilaka daitezke. Zama hori arintzeko jarri berri dugu programa hau abian”, adierazi du Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak.

Zaintza lanek, askotan, ordu luzeetako dedikazioa eskatzen dute, eta horrek osasun fisiko eta emozionala ahultzea dakar. Senide zaintzaileen artean ‘Burnouten sindromea’ ohiko den gisa, emakume migratzaileen kasuan dolu migratzailea gehitu behar zaio lanaren zailtasunei. Migratzaileen kasuan, erantzunkizun eta erru sentimendua handia izan ohi da, beren familiako zaintza lanetarako beharrezko denbora hartzerik ez dutelako izaten. “Bizitza hobeago baten bila etorri diren etorkin horiek ordu luzeetako lan egunak, eta zaintza lan gogorraz gain, beren motxila propioa dakarkite.”, gaineratu du. Horri guztiari erantzun asmoz, eta zaintzaile migratzaile horien bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin, espazio psikoterapeutiko bat eskaintzen die udalak. Talde saioak egiten hasi berri da. Talde saio horien bidez, beren emozio eta sentimenduak adierazteko espazio bat eskaini nahi zaie; bakoitzaren esperientzia eta zaintza prozesuan sortzen diren arazoak partekatzeko eta aurrera egiteko estrategiak diseinatu eta norberaren zaintza erraztuko duten bizimodu osasungarriak sustatzen dira, besteak beste.

SENDIAN, SENIDEENTZAT

Etxean mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten familiei laguntzeko, familia barruko gorabeherak prebenitzeko, elkarbizitza normalizatu bat egiteko, eta mendekotasuna duen pertsonari arreta egokia emateko ere eskaintzen da Sendian programa. Prestakuntza, elkarlaguntzako taldeak, arreta psikologikoa, egoitzako aldi baterako arreta laburra eta asteburu eta jaiegunitako eguneko arreta eskaintzen dira programa horren baitan. Laguntza horietarako sarbidea izateko, nahikoa da mendekotasun egoeran dagoen pertsonak hori aitortuta izatea eta senidea izatea.

Talde saio horien bidez, beren emozio eta sentimenduak adierazteko espazio bat eskaini nahi zaie; bakoitzaren esperientzia eta zaintza prozesuan sortzen diren arazoak partekatzeko eta aurrera egiteko estrategiak diseinatu eta norberaren zaintza erraztuko duten bizimodu osasungarriak sustatzen dira, besteak beste.




Menpeko pertsonen etxez etxeko zaintza zerbitzu integrala jarriko da abian

Azpeitiko Udalak gaur egun eskaintzen du menpekotasuna duten pertsonentzako etxez etxeko zerbitzua; egunez zein gauez. Etxebizitzetan bizi diren menpeko pertsonen egunerokoan laguntzeko zerbitzua da zehazki. Hala ere, menpekotasun arin edo handiagoa duten pertsonen garapenari erantzungo dion zerbitzu integral baten aldeko apustua egin nahi dute. Eta datorren urtean jarriko dute abian zerbitzu berri eta berritzailea.

Azpeitiko Udalarentzat, ezinbestekoa da pertsonen beharrei erantzutea izan medikoak, psikologikoak, emozionalak, ekonomikoak edo sozialak. Eta hori horrela izan dadin, laguntza-mekanismo formal eta informalak eskaintzea beharrezkoa da. "Pertsona



Menpekotasunen edo hauskortasun egoeran dauden pertsonen harreta pertsonalizatu, integral eta espezifikokoak eskaintzea da helburua



Etxean bizi diren pertsonen hauskortasun egoerei ere aurre egin nahi diegu

Datorren urtearen hasieran jarriko du udalak zerbitzu berria abian; helburua izango da menpeko pertsonen beharrei erantzun integrala emango dion zerbitzua eskaintzea

bakoitzari, eta kasu honetan, menpekotasunen edo bat duten edo hauskortasun egoeran dauden pertsonen harreta pertsonalizatu, integral eta espezifikoa eskaintzea da helburua. Etxean bizi den pertsona horren garapenerako lagungarri izango den arreta egokia eskainiko da”, zehaztu du Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua. Zaintzan zein mendekotasun egoeren prebentzioan eragingo du zerbitzu berriak.

Mendekotasun bat izanagatik oraindik etxean bizitzeko gai diren edo horretarako hautua egin duten mendeko pertsonen zaintza, askotan familiaren bizkar gelditzen da. Horregatik, 365 eguz, 24 orduz harreta etxean bertan eskaini nahi zaie mendekota-

sunen bat izan eta etxean zainduak izatea erabakitzen dutenei. “Zaintza erronka handia da familia askotan, are eta handiagoa, etxean zaintzeko erabakia hartzen dutenentzat. Horregatik, mendeko pertsonen garapenean lagungarri eta lasaigarri diren zerbitzu integral bat eskaintzeko pausoa emango dugu. Etxean bizi diren pertsonen hauskortasun egoerei ere aurre egin nahi diegu”, gaineratu du.

Bakoitzaren premiei erantzunez emango da zerbitzua. Arreta hori parte-hartzean eta ingurunea aukatatzeko eta kontrolatzeko gaitasunean oinarrituko da, eta, horretarako, dauden baliabide publikoak erabiliko dira, hala nola, etxez etxeko laguntza, eguneko zentroa eta eguneko unitatea, besteak beste. Zerbitzu horiez gain, ordea, gainbegiratze pertsonala, gizarte-laguntza, larrialdiko arreta eta psikosimulazio-arreta - gaitasun kognitiboak, funtzionalak eta psikosozialak garatzeko motor gisa- ere eskainiko dira hemendik aurrera.

ZERBITZUAREN XEHETASUNAK

Etxeko Arreta Integraleko Zerbitzua lehen mailako arretako zerbitzu publikoa izango da, eta asistentzia eskaintzeaz gain, mendekotasun egoeren prebentziokoaren lanketa ere egingo da. Erabiltzaileari bere etxean eskainiko zaio laguntza, eta asistentzia jasoko du jarduera instrumentaletarako, gizartelaguntzarako, eguneroko bizitzako jardueretarako, estimulazio psikoafektiborako jardueretarako eta larrialdi-egoeretan arreta emateko jardueretarako, etxean bertan moldatzea eta ingurunean integratzea ahalbidetzeko. Isolamendu-egoerak edo bakardadearen ondorioz sor daitezkeen egoerei aurre egitea ere lortu nahi da.

Zerbitzu guztiak printzipio orokor hauetan oinarritzen dira: normalizazioa, autonomia, parte-hartzea, integrazioa, arreta pertsonalizatua, globaltasuna eta profesionalizazioa.



Azpeitia
Denontzat

**2022.
urte berri on.**

Segi dezagun
denontzako Azpeitia
denon artean eraikitzen.

www.azpeitia.eus